

DIRU-SARRERAK

Oluss enpresaren diru-sarrera aktiboen salmenta da, izan ere, gure enpresaren aktiboa Meatchine makina da. Beraz, gure produktua erosi ostean, bezeroek edozer egin dezakete harekin, hala nola, saldu, erabili, suntsitu, beste bateri eman....

Beraz, esan dezakegu gure enpresaren diru-sarrerak ordainketa bakarrekoak direla, bezeroek ordainketa bakar batekin erosten baitute gure produktua, eta gero haien eskura geratzen da noiz, non eta nola erabili.

Beste alde batetik, gure negozioak prezio dinamikoak ditu, hau da, prezioak aldatu egiten dira merkatuaren egoeraren arabera. Halaber, prezio dinamikoen artean hainbat mota daude, baina gurea hain zuzen ere, denbora errealeko merkatua da, eskaintza eta eskariaren arabera erabakitzen dena. Beraz, zenbat eta handiagoa izan eskaria eskaintza baino, orduan eta altuagoak izango dira prezioak, eta alderantiz, zenbat eta txikiagoa izan eskaria eskaintza baino, orduan eta baxuagoa izango da ordaindu beharreko kantitatea Metachine lortzeko